



NAZIOARTEKO EGIAZTATZE BATZORDEAK (NEB) SORTUTAKO DOKUMENTAZIOA



- **Ronnie Kasrils** Hego Afrikako politikari erretiratua eta saritutako autorea da. Hego Afrikako apartheidaren aurkako askapen-borrokan eginkizun garrantzitsua izan zuen. Apartheidaren bukaeraz geroztik Kasrils jauna Defentsa Ministro-orde (1994-1999), Ur eta Basoen Ministro (1999-2004) eta Inteligentzia Ministro (2004-2008) bezala aritu da. Afrikako Kongresu Nazionalako Batzorde Exekutiboko kide izan zen 16 urtez zehar.
- **Chris Maccabe** Gobernu britainiarreko Ipar Irlandako Bulegoko (IIB) Zuzendari politiko ohia eta Britainiar-Irlandar Gobernu-arteko Konferentziako Idazkari Adjuntu Britainiar ohia (2000-2008) da. Maccabe jauna IIB-ko sail politikoko buru izan zen 1998an Ostiral Santuko Akordiora eraman zuten negoziazioetan. Gobernuen eta nazioarteko erakundeen aholkulari bezala ere ibili izan da bake prozesuetan Kosovo edo Tanzania bezalako lekuetan. Maccabe jaunak 2004 Companion of the Order of the Bath titulua jaso zuen.

- **Ram Manikkalingam** Elkarrizketarako Aholkularitza Taldeko Zuzendari eta Amsterdameko Unibertsitateko Irakasle Bisitaria da. Rockefeller Fundazioko Nazioarteko Segurtasun programako buru ibili zen. Gero Aholkulari Nagusi bezala aritu zen Sri Lankako aurreko Presidentearentzat bake prozesuan. Manikkalingam doktoreak hainbat gatazken konponketan hartu du parte, Irak edo Ipar Irlandakoak barne. Ipar Irlandan Askapen Nazionalerako Armada Irlandarraren desarmera eraman zuen elkarrizketan erraztaile bezala aritu zen. Asko idatzi du gatazkak, kulturartekotasuna edo demokrazia bezalako gaien inguruan.
- **Satish Nambiar** Teniente Jenerala Indiako Estatu Nagusiko Armadako Buru Adjuntu ohia da. Indar Komandante lehena eta Nazio Batuen Babes Indarren Misio Buru bezala aritu zen Jugoslavia ohian 1992/1993an. Militar bizitzatik erretiratu ondoren Indiako Zerbitzu Batuen Instituzioko Zuzendari izan zen 12 urtez zehar (1996-2008). Nazio Batuen Idazkari Nagusiaren Goi Mailako “Mehatxuak, Erronkak eta Aldaketak” Taldeko kide izen zen 1003/3004ean. India-EU Mahai-inguruko delegazio indiarreko kide eta Asia Pazifikoko Segurtasun Lankidetzako Kontseiluko (CSCAP) Indiako kapituluko kide da.
- **Aracelly Santana**, Nepalen Nazio Batuetako Idazkari Orokorraren Alboko Ordezkarri Berezi Ohia da (2008) eta Libian gatazkaren osteko denboraldiaren plangintzarako Nazio Batuetako Idazkari Orokorraren Aholkulari Bereziaren Alboko Ohia (2011). Nazio Batuetan bere hogeitau urteko ibilbide profesionalean zehar, bere eginkizuna munduko eskualde anitzetan garatu zen, honako gaiez arduratuz: bideratzea (Hegoafrika, Kolonia), bakearen ezarpena (El Salvador eta Guatemala), bitartekaritza, hauteskunde laguntza eta Nazio Batuen bake lanak (Balkanak, Nepal eta Libia). Gatazkaren prebentzioari eta bitartekaritzari buruzko mintegiak eman izan ditu, Nazio Batuek eta Folke Bernadotte Academy-k (Suedia) maila zibil eta maila altuko militarrei antolatutako lidergo ikastaroetan.
- **Fleur Ravensbergen** izeneko taldearen bitartekaritza lanak zuzentzen ditu. Bulegoa, kontuak eta programen alde praktikoak kudeatzen ditu. Aldez aurretik Holandako Garapenerako Lankidetzako Ministerioan egin izan du lan, Holandako

Alderdi Laboristan eta ikerketa agentzia batetan, non gobernu eta politika arloetako ikerketa proiektuak zuzentzen zituen.

Kide Ohia:

- **Ray Kendall** Britainia Handiko polizia-agente ohia da, Iruzuraren aurkako Europako Batasunaren Bulegoko Presidente eta Interpoleko Ohorezko Idazkari izendatutakoa. Kendall jauna Interpoleko Idazkari Nagusi bezala ere ibili zen 15 urtez zehar (1985-2000). Polizia koloniala izan zen Ugandan eta Polizia Metropolitarrako Mandatari Adjuntu bezala ibili zen, Scotland Yard-en, Sail Berezian. Erreginaren Polizia Domina eta Ohorezko Legioko Chevalier (Frantzia) tituluak ditu.

DOKUMENTUAK

1. Nazioarteko Egiaztatzen Batzordearen abiada



Sarrera Ram Manikkalingam-en eskutik

Jaun-andreok:

Ongietorriak Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen inaugurazio bilerara. Batzordeko gainerako kideen izenean, gaurko bilerara etorri izana eskertu nahi dizuet. Alderdi politikoek, sindikatuek, elizak eta enpresarien federazioak osatutako euskal gizartearen ordezkaritza bat dugu hemen. Eta gure aurrean, erronka bat den eginkizun bat: su-etenaren egiaztatzea. Haatik, gai honi elkarrekin eutsiko diogun itxaropena dut.

Elkar ezagutzea da bilera honen helburua. Hiru galdera erantzungo ditut bileran: Nortzuk gara? Zergatik gaude hemen? eta Zer egin behar dugu?

Nortzuk gara?

Euskal Herriko Su-etenaren Nazioarteko Egiaztatze Batzordea gara. Nire eskuinean, amaieratik hasita, Chris Maccabe jauna aurkezten dizuet. Maccabe jaunak Ostiral Sainduko Hitzarmenaren negoziatioetan parte hartu zuen Erresuma Batuko Gobernuko Ipar Irlandako Bulegoaren zuzendari politiko bezala. Hitzarmenaren erredakzio lana gauzatu zuen Angloirlandar Konfederazioaren Alboko Idazkaria ere izan zen. Ipar Irlandako Espetxe Erregimenetako Nagusi kargua bete du eta badu eskarmentua beste bake-prozesu batzuetan ere.

Nire ondoan, eskuinean, Satish Nambiar Teniente Jenerala dago. Indiako Armadaren Estatu Nagusiko Alboko Nagusia izan zen. Nazio Batuetako Indarreko Komandante ere jardun zen Jugoslavia-ohian. Berriki, mehatxuei, erronkei eta Nazio Batuetako Idazkari Nagusiaren aldaketari buruzko goi mailako Taldean parte hartu du.

Nire ezkerretara Ronnie Kasrils jauna dago, Hegoafrikan Defentsa Ministro-orde izandakoa demokraziarako trantsizioa eta berehala. Inteligentzia Ministro eta Gai Hidriko eta Forestaletako Ministro ere izan da. Hegoafrikan apartheid-en aurkako borrokan buru aktiboa izan zen. Kongresu Nazional Afrikarreko kide da.

Bere ondoan, Ray Kendall dago. Duela urte batzuk arte Interpoleko Idazkari Nagusi izan da. Kendall jauna Scotland Yard-eko Mandatari Adjuntoa ere izan zen eta urte asko eman ditu 'Special Branch'-en (Erresuma Batuko Poliziaren Segurtasun Nazionalerako Sail Berezia) zerbitzuean. Zuetako askok dakizuen bezala, Euskal Herriko gaietaz arduratzen den Harremanetarako Nazioarteko Taldeko kide izan da Kendall jauna. Segurtasun indarretan duen esperientzaz, batzordearen lanerako baliagarri izan zitekeela iruditu zitzaigun, eta hori dela-eta, Harremanetarako Nazioarteko Taldea utzi du aurrerantzean Nazioarteko Egiaztatze Batordeko kide izateko.

Nire ezkerrean, amaieratik hasita, Fleur Ravensbergen anderea dago, Dialogue Advisory Group-eko Programen Zuzendaria. Eskarmentu zabala du. Beste toki batzuen artean, Ipar

Irlandan eta Iraken gatazka egoeratan aritu da lanean. Beste ekintzen artean, armen entregurako erraztaile lanetan jardun zen, bai eta eta Ipar Irlandako errepublikar espetxeratu disidenteen eta espetxe-agintarien arteko hitzarmenaren aplikazioan ere. Batzordeko Koordinatzaile lanetan jardungo da bera.

Azkenik, utz iezadazue neure burua aurkezten. Ram Manikkalingam naiz. Amsterdameko Unibertsitateko irakasle naiz eta Dialogue Advisory Group-eko zuzendari. Erraztaile lanetan parte hartu dut munduko toki ezberdinetan. Aurretik, Sri Lanka-ko Presidentearen Aholkulari Nagusia izan nintzen. Nazioarteko Bake eta Segurtasunari buruzko Rockefeller Fundazioaren programa ere gidatu nuen.

Zergatik gaude hemen?

Bada Euskal Herrian indarkeriari behin betiko amaiera jartzeko aukera bat. Euskal gizartearen desioa da. Espainiar gizartearen desioa da. Eusko Jaurlaritzaren desioa da. Eta Espainiar Gobernuaren desioa da.

Su-eten iraunkor, orokor eta egiaztagarria iragarri zuen ETAk 2011ko urtarrilaren 10ean. Eszeptizismo handiz izan zen hartua ETaren su-etenaren iragarpena. Eszeptizismo hori partekatzen genuen guk ere. Orain, irgagarpenatik bederatzi hilabete igaro direnetik, urriagoa da eszeptizismoa eta handiagoa itzaropena, baina oraindik ez gara iritsi indarkeria behin betiko amaierara heldu den puntura.

Su-etena egiaztagarria zen ETaren iragarpenak honakoa egitera eraman zituen ETak bere konpromisoari eutsiko ziola bermatu nahi zuten euskal gizarteko sektore batzuk: aipatu egiaztatzea eskatu eta eskaera hori nazioarteko hizketakide ezberdinei iristarazi zieten. Harremanetarako Nazioarteko Taldea zegoen hizketakide horien artean. Su-etena egiaztatzeke ez gaitasunik ez eta desiorik ere ez zuela iritzi zuen Harremanetarako Nazioarteko Taldeak.

Ez zuen gaitasunik bere kideak giza eskubideetan eta zerikusia duten gai politikoetan adituak baitira, eta ez segurtasun eta armada gaietan. Ez zuten egiaztatzeke asmorik, pertsona batzuen aldetik jokabide partzialarekin hautemanak izango ziren sententzia baitzuten. Nik, pertsonalki, ez dut uste partzialak direnik. Haatik, Euskal Herriko egoerari

heltzeko orduan, alderdietako batean zentratu ziren alderdi honen aldaketa lortzeko asmoz, eta horrek alderdikeriaren hautematea ekarri zuen. Arrazoi hauengatik, su-etena egiaztatzeko aukera ikastea eskatu zieten Batzordeko kideei.

Bilbora etorri ginen eta hizketakide sorta batekin bildu ginen: eliza, Enpresarien Federazioa, Eusko Alderdi Jeltzalea, Euskadiko Alderdi Sozialista eta Ezker Abertzalea. Hizketakide izan genituen guztiak bat zetozen gai nagusi batean: su-etenak jarraitu egin behar zuen.

Haatik, ikuspegi ezberdinak zituzten su-etena gauzatu zen moduaren inguruan. Batzuek bai segurtasun indarrei —polizia eta inteligentzia zerbitzuak— bai eta nazioarteko lankidetzaren eraginkortasunari ere egozten diote su-etenaren arrakasta. Beste batzuek ETAREN ikuspegi politikoak (baina ez metodoak) partekatzen dituztenen artean izandako jarrera aldaketari egozten diote su-etena. Beste batzuek faktore bien arteko konbinazioa ikusten dute su-etenaren arrazoi bezala. Hemen garatzen jarraituko den eztabaida da hau. Guri, Batzorde bezala, gutxiago kezkatzen gaituzte su-etena ekarri duten zio zehatzek eta gehiago etorkizunean mantentzeko erak.

Horrela bada, gure lana hasi eta su-etenaren egiaztapenari ekiten hasi baino lehen, beharrezkoa genuen jakitea ETAK su-etenaren gure interpretazioa onartzen ote zuen. Su-etenean “iraunkorra” adjektiboa nahikoa ez zela iruditzen zitzaigun, izan ere, aurretik jada iraunkor izendaturiko su-etenak gauzatu baitira. Halaber, “egiaztagarria” adjektiboa nahikoa ez zela iruditzen zitzaigun, su-eten bat egiaztatu behar bagenuen, ezaugarri egokiak zituen su-etena izan behar baitzuen, egiaztatzeko merezimendua izango zuena. Eta, azkenik, kunplimendu mailarik altuenak emango zirela ziurtatu nahi genuen.

Guretzat ezinbestekoa zen ETA ados egotea su-etena aldebakarrekoa eta baldintzarik gabekoa den gure interpretazioarekin. Aldebakarrekoa, eskusiboki ETAK bere gain hartutako konpromisoa delako, Madrilgo gobernuak edo Gasteizko gobernuak egiten dutena egiten dutela ere. Eta baldintzarik gabea da, ETAK ezin baitu argudiatu beste pertsona edo entitate batek ez duela hau edo hori egin su-etena urratzeko zio bezala.

ETA su-etenaren gure interpretazioarekin bat zetorrela bermatu genuen bezain pronto, batzordea eratu eta Bilbora etorri ginen.

Nola arituko gara lanean?

Zuen mende gaude —euskal gizartearen osagai giltzarri bezala— su-etena egiaztatzeko. Arrazoi ezberdinengatik: Lehenik eta behin, zuek badakizue —inor baino hobere— zer gertatzen den euskal gizartean. Su-etena bete-betean errespetatzen ari al dira? Egoera hobetzen edo okertzen ari al da? Zeintzuk dira pertsonen aurrez aurre dituzten arazo zehatzak? Eta zuek gu baino askoz ere hobere kokatuta zaudete zer gertatzen ari den jakiteko.

Bigarrenik, beste konpromiso asko ditugun nazioarteko talde txiki bat gara. Ezin gara instalatu hemen iraunkorki, eta horregatik, zuek bezalako pertsonekin egin behar dugu lan su-etena eraginkortasunez egiaztatzeko. Zuek gabe, soilik ezin dugu betekizun hau garatu. Zuen kideekin hitz egin eta su-etenaz haien ikuspegiak bilduko dituzuela espero dugu. Zer moduzko funtzionamendua duen eta nola hobetu daitekeen.

Jarraian, zuekin aste gutxiko aldearekin bilduko gara zuen txostenak era indibidualean eta taldekakoan eman diezazkiguzuen. Txosten hauek konfidentziasunetik handienarekin erabiliko ditugu. Behin horiek jasota, gure eskuetara iritsiko diren beste agiri batzuekin alderatuko ditugu. Orduan, Batzordearen baitan eztabaidatuko ditugu eta, azkenik, erabaki bat hartuko dugu. Behin erabaki hori hartuta, gure ondorioak dagokien eragile sozialei helaraziko dizkiegu egoki bederitzote neurriak hartzeko.

Denborarekin, Euskal Herriko eta gobernu nazionalen mandatariekin lokarriak finkatzea aurreikusten dugu su-etenaren aplikazioaz haien ikuspegiak jasotzeko. Begi-bistan da badela soilik gobernuetako mandatariek eduki dezaketen informazio zati bat. Gure lana gauzatzen hasi baino ez gara egin, eta Espainiak une delikatua bizi du hauteskundeak direla eta. Hortaz, jakin badakigu betebeharrak honek bere denbora beharko duela.

Zer ez dugu egin behar?

Halaber, garrantzitsua da ez zuek, gure bazkide giltzarri bezala, ez eta euskal gizarteak orokorrean ere, ez jartzea gudan, kanpotar talde txikia garen neurrian, bete ezin ditzakegun espektatibak. Horrenbestez, oso argi zehaztu behar dugu zer ez dugun egin behar.

Ez gara gai politikoez arduratzen garen erakunde bat, su-etenarekin lotutako gaiez arduratzen den talde tekniko bat. Batzordeko kideek beren ikuspegi pertsonalak izan ditzaketen arren euskal eta espainiar politikaz, batzorde bezala eragiten ez digun zerbait da. Guk ezin diegu heldu gai batzuei, hala nola orgarnizazio bat legalizaztu beharko litzateen edo zer gertatu beharko litzateke presoekin, eta beraz, ez dugu egingo. Gai garrantzitsuak dira, zalantzarik gabe, baina ez da gure eginkizuna horiez arduratzea. Gure eginkizuna ez da hain zabala eta mugatu egiten da ETAk iragarri duen su-etenaren konplimendura edo konplimendu ezara.

Era berean, ez gara ETArekin edo bere kideekin, organizazio bezala, lotutako gai guztietaz arduratzen den organismo bat. Ez dauzkagu ETAREN ekintza guztiei (bai legezkoak nola beste era batetakoak) aurre egiteko baliabide, denbora eta gaitasunik. Espainiar eta euskal mandatariak hobe kokatuta daude hori egin ahal izateko. Beste berriz ere, gure betekizuna mugatu egiten da ETAREN aldetiko su-etenaren konplimendura eta konpromiso hau errespetatzen ari den edo ez egiaztatzerara.

Azkenik, euskal testuingurua guretzat berria dela nabarmendu nahi dut. Gaiaren konplexutasunaz ikasten ari gara eta ikasketa prozesuan akatsak egingo ditugu, Batzuetan ezkajinak ematen badugu barka diezaiguzuela eskatzen dizuegu orain. Zuen laguntza eta aholkularitzarekin egoera honetako aspektu zehatzak ezagutuko ditugu eta gure lana ahalik eta hoberen egiteko gai izango gara.

Norbanakoaren izenean gaude hemen eta ez gure gobernuetako ordezkari gisa. Bake-prozesutan, segurtasun indarretan eta indar militarretan eta inteligentzia zerbitzutan dugun talde esperientzia baliatuko dugu eginkizun hau garatzeko. Prozesu berri baten hasieran gaude, baina eginkizunarekin konprometituta gaude eta epe luzerako gaude hemen. Gaur zuek guztiak hemen zaudetela ikusteak eta hemen ez daudenen babesa ere badugula jakiteak konfidantza eragiten digu Euskal Herria indarkeriaren behin betiko amaieraruntz mugitzen ari dela sinisteko.

Eskerrik asko.

2. NAZIOARTEKO EGIAZTATZE BATZORDEAREN (NEB) AURKEZPENA



Prensa ohar honen bidez komunikabide guztiei jakinarazten zaie Euskal Herrian su-etenaren Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen (NEB) aurkezpena.

Azken urteotan bakeranzko aurrerapauso garrantzitsuak gertatu dira Euskal Herrian. Gaur garai itxaropentsu baten aurrean gaude. Etapa honetara iristen lagundu duten faktoreen artean, nabarmentzekoa da euskal gizartearen eskakizun argi eta irmoa indarkeria behin betiko amai dadin.

Prozesu honetan funtsezko pausoa da su-eten sinesgarri eta itzulezina. Horregatik, euskal gizarteko hainbat elementuk adierazi dute ETAk 2011ko urtarrilaren 10ean iragarritako su-eten "iraunkor, orokor eta egiaztagarria" egiaztatzeko mekanismo bat sortzeko beharra. NEBren eraketak euskal gizarteko elementu ezberdinek Batzordeko kideei su-etena egiaztatzeko mekanismo bat sortzeko egindako eskakizunari erantzuten dio.

NEB bake prozesuetan eta segurtasun gaietan nazioarteko esperientzia zabala duten hainbat pertsonak osatzen dute. NEBren helburua ETAREN su-etenaren egiaztapenean

jardutea da lan serio eta zorrotza eginez. Horretarako, Batzordeak euskal gizarteko elementu posible guztiekin egingo du lan.

Azken bi egunotan NEB Euskal Herriko alderdi politiko, enpresarien elkarte, sindikatu eta Elizako ordezkariekin bildu da Batzordearen lanaren hasierari buruz hitz egiteko.

NEBk aldizkako bilerak izango ditu euskal gizarteko elementu posible guztiekin Euskal Herriak eskatzen duen su-eten sinesgarri eta itzulezina sendotu eta sakontzen lagun dezaketen datu, ideia eta proiektuak elkarbanatzeko helburuarekin.

Hauek dira NEBko kideak:

- Ronnie Kasrils (Hego Afrika)
- Ray Kendall (Erresuma Batua)
- Chris Maccabe (Erresuma Batua)
- Ram Manikkalingam (Sri Lanka)
- Satish Nambiar Teniente Jenerala (India)

NEBren Koordinatzailea Fleur Ravensbergen izango da.

3. Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen (NEB) Txostena



NEB 2011ko irailaren 28an sortu zen. Batzordeak bere osotasunean egin du bere bigarren bilera Bilbon 2012ko urtarrilaren 25 eta 26an. Bi hitzorduen denboraldian, Batzordeko kideak Euskal Herrira etorri dira egoeraren inguruko informazioa jaso eta beronen jarraipena egiteko.

Egun hauetan zehar NEB euskal gizarteko eragile politiko eta sozial aipagarriekin bildu da: alderdi politikoak (PSE-EE, EAJ, ezker abertzaleko alderdiak); sindikatuak (UGT, CCOO, ELA, LAB); enpresa-elkarteak (Confebask); Elizako ordezkariak; eta Euskal Herriko autoritateak. Bilera hauetan ETak su-etena deklaratu zuenetik 2011ko urtarrilaren 8an eta indarkeriaren behin betiko amaiera iragarri zuenetik 2011ko urriaren 20an hilketak, atentatuak, erasoak, mehatxuak eta estortsioa eten egin direla jakitera ematen duen informazioa jaso du Batzordeak.

NEBk deritzo bi adierazpenak, ETaren su-etena eta indarkeriaren amaiera, prozesu itzulezin baten baitan daudela eta ETak ez duela inongo asmorik etorkizunean ekintza terroristak antolatu edo bortizkeria erabiltzeko.

Dena den, ETA erakunde klandestino eta armatua izaten dirau. Hala izanik, ekintza ilegalak egiten jarraitzen du, hala nola, agirien faltsutzea edo armategiak mantentzea. Ekintza hauek legez kanpokoak izan arren, ez daude nahitaez indarkeriazko ekintzak prestatzearekin lotuta.

NEBk ETARI jakinarazi dio armen eta lehegailuen jabetza iraunkorrak (bereziki arma pertsonalak eramateak) arriskutsuak izan daitezkeen egoerak sortu ditzakeela.

Batzordeak su-etenarekin zuzenean lotuta ez daudela deritzon gaien inguruko informazioa jaso du. Adibidez, kale borroka bezalako istilu isolatuak gertatu dira, Euskal Herriko alderdi politiko guztiek errefusatu dituztenak. NEBk presoen senideen alde egindako eskaerak ere aintzat hartzen ditu. Une delikatu honetan guztiz garrantzizkoa da denek era neurtu eta arduratsuan jardutea.

Harreman zuzenen bidez, ETAK NEBri ziurtatu dio bi adierazpenekin konprometitu dagoela: 2011ko urtarrileko su-etena eta ekintza armatuaren behin betiko amaiera urte bereko urrian.

NEBk lan-harreman positiboak finkatu ditu Euskal Herrian, eta harremanak hedatzen jarraitu nahi du. Batzordeak erabakitasun eta inpartzialtasunez jarraituko du lanean, Euskal Herrian bake iraunkorrerako aukera historiko honi laguntzeko helburuarekin.

Oharra

NEB hurrengo kideek osatzen dute:

- Ronnie Kasrils, Inteligentzia ministro ohia eta defentsa Ministrordea Hegoafrikan.
- Ray Kendall, polizia britainiar ohia, Iruzuraren aurkako Europako Batasunaren Bulegoko presidente ohia eta Interpoleko Ohorezko Idazkari Nagusia.
- Chris Maccabe, Gobernu britainiarreko Ipar Irlandako Bulegoko Zuzendari politiko ohia eta Ipar Irlandako Presondegi Erregimenen Buru ohia.
- Ram Manikkalingam, Elkarriketarako Aholkularitza Taldeko Zuzendari eta Amsterdameko Unibertsitateko Irakaslea eta Sri Lankako Presidentearen aholkulari ohia Tigre tamilen negozioetarako.

- Satish Nambiar, Indiako Estatu Nagusiko Armadako Buru Adjuntu ohia eta Komandante ohia eta Nazio Batuen Babes Indarren Misio Buru ohia Jugoslavian 1992 eta 1993an.
- Fleur Ravensbergen, NEBren koordinatzailea eta Elkarrizketarako Aholkularitza Taldeko zuzendariordea.

4. Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen Txostena (NEB)

Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak (NEB) Bilbon bilera anitzak egin ditu, 2013ko otsailaren 18tik 20ra arte Euskal Herrian su-etenari eta indarkeriaren bukaerari buruzko informazioa jasotzeko eta alor hauetan egon diren aurrerapenei jarraipena egiteko.

Otsailaren 18an eta 19an, Batzordeak aldebiko bilerak izan zituen Eusko Jaurlaritzako Lehendakariarekin eta euskal gizarteko eragile politiko eta sozialen ordezkariarekin (behean hizketakideen zerrenda ikus daiteke). Otsailaren 20an Batzordeak osoko bilera bat egin zuen. Batzordeak guztion bertaratzea erabat eskertzen du, bere betebeharrean izandako laguntza dela eta.

Bisitaldi honetan zehar, Batzordeak, ETAren su-eten iraunkor, orokor eta egiaztagarriaren adierazpenetik bi urtera eta indarkeriaren behin betiko amaieraren adierazpenetik 16 hilabetera, ETAk bere konpromisoak betetzen jarraitzen duela frogatu du.

Euskal Herrian ditugun hizketakideek jakinarazi digute hilketak, lehergailuekin atentatuak, erasoak, mehatxuak eta estortsioa eten egin direla.

Batzordeak orokorrean ETAk su-etenean hartutako konpromisoen betetzea eta indarkeriaren amaierari buruzko adierazpena nahikotzat jotzen dituen arren, behar diren arloak hobetzeko.

Batzordeak ikusi du euskal gizartean bakearen sendotzerantz pauso berriak hartzeko beharri buruzko itxaropen handia dagoela. Eragile bakoitzari deia egiten diogu daukagun aukera honetaz baliatu daitezela pausu berriak emanez eta konfiantzaren sorrerarako neurriak hartuz.

Euskal Herriko hizketakideekin bilera eta ETArekin harremanetan egon ondoren, Batzordeak urrats horiek emango direlakoan baikortasuna agertu du. Hala ere, asebetetzea eta atzerapenak sahiesteko, ezinbestekoa da orain pauso egokiak ematea aukera historiko hau aprobetxatzeko. Batzordea eragile guztien eskura geratzen da lorpenak erdiesten laguntzeko helburuarekin.

Batzordeak Eusko Legebiltzarrari ongietorria eman nahi dio. Batzordeak Legebiltzar honek bakerako sendotzean aurrera egingo duen erabateko konfiantza dauka. Hain zuzen ere, Batzordeak Legebiltzarreko Bake eta Bizikidetzarako Txostena alde guztien elkarriketarako baliogarria izatea espero du.

Batzordeak Euskal Herrian sortutako lan harreman onak zabaltzen jarraitu nahi du. Batzordeak determinazioz eta inpartzialtasunez Euskal Herrian lan egiten jarraituko du bake iraunkorrerako aukera historikoaren alde egiteko.

2013ko otsailaren 20an Batzordea honako eragile politiko eta sozialekin elkartu zen:

- Iñigo Urkullu (Lehendakaria)
- Andoni Orutzar (EAJ-PNV)
- Joseba Aurrekoetxea (EAJ-PNV)
- Jesús Loza (PSE-EE)
- José Antonio Pastor (PSE-EE)
- Rufi Etxeberria and Urko Ayarza (Ezker Abertzalea)
- Miguel Ángel Lujua (Confebask)
- Nuria Lopez de Guereñu (Confebask)
- Xabier Anza (ELA)
- Patxi Agirrezabala (ELA)
- Ainhoa Etxainde (LAB)
- Jon Etxeberria (LAB)
- Igor Urrutikoetxea (LAB)
- Raúl Arza (UGT)
- Emilia Málaga (UGT)
- Oscar Arenas (Euskadiko Langile Komisioa – CCOO)
- Loli Garcia (Euskadiko Langile Komisioa – CCOO)
- Santiago Martinez (Euskadiko Langile Komisioa – CCOO)
- Ángel María Unzueta Bikarioa (Bilboko Elizbarrutia, Eliza)
- Juan María Uriarte Apezpikua (maila pertsonalean gonbidatua)

Batzordea honako kideek osatzen dute

- Ronnie Kasrils, Inteligentzia ministro ohia eta defentsa Ministrordea Hegoafrikan.
- Chris Maccabe, Gobernu britainiarreko Ipar Irlandako Bulegoko Zuzendari politiko ohia eta Ipar Irlandako Presondegi Erregimenen Buru ohia.
- Ram Manikkalingam, Elkarrizketarako Aholkularitza Taldeko Zuzendari eta Amsterdameko Unibertsitateko Irakaslea eta Sri Lankako Presidentearen aholkulari ohia Tigre tamilen negoziazioetarako.
- Satish Nambiar, Indiako Estatu Nagusiko Armadako Buru Adjuntu ohia eta Komandante ohia eta Nazio Batuen Babes Indarren Misio Buru ohia Jugoslavian 1992 eta 1993an.
- Aracelly Santana, NBEko Idazkari Orokorraren Alboko Ordezkarria eta Misio Alboko Burua, Nepalen NBEko Misioa (UNMIN) eta Ameriketako Bulegoko Zuzendari ohia, NBEko Gai Politikoen Departamentua.
- Fleur Ravensbergen, NEBren koordinatzailea eta Elkarrizketarako Aholkularitza Taldeko zuzendariordea.

5. Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen Txostena

2014ko otsailak 21

Nazioarteko Egiaztatze Batzordea (NEB) 2011ko irailaren 28an eratu zen ETAk 2011ko urtarrilaren 10ean iragarritako su-eten iraunkor, orokor eta egiaztagarria eta ondorengo 2011ko urriaren 20ko indarkeriaren behin betiko amaiera egiaztatzeko.

Batzordea eratu zenetik ETAk hilketak, atentatuak, mehatxuak eta estortsio ororekin amaitzeko bere konpromisoa mantendu duela egiaztatu du Batzordeak. Denbora tarte honetan zehar euskal eragile politiko eta sozialekin hertsiki lanean aritu da, besteak beste, Eusko Jaurlaritza, alderdi politikoak, sindikatuak, Confebask eta Elizaren ordezkariekin. NEBk su-etena eta indarkeriaren behin betiko amaiera egiaztatzeko lanean bere laguntza eta babesa eskertu nahi dizkie.

Batzordearen azken bisitan 2013ko otsailean, NEBk aurrerapauso positiboak egiaztatu zituen Euskal Herrian eta indarkeriaren amaiera errotzeko esfortzuak areagotzeko bere desioa agertu zuen. Horregatik eragile guztiak konfiantza areagotzen laguntzeko neurriak hartzea eta pauso berriak ematera animatu zituen.

2013ko apirilean ETAk konfidentzialki NEBi bere arma, munizio eta lehergailuen indargabetzea eta erabilera operatibotik kanpo jartzeko prozesu aldebakarraren egiaztatzea bere mandatuan sartzea eskatu zion. Batzordeak eskaera hori onartu zuen. 2013ko irailean ETAk prozesu honetan lehen pauso bat emateko prest zegoela helarazi zion NEBi, 2014ko urtarrilean gauzatu zena, Batzordearen aurrean.

Batzordeak ETAk arma, munizio eta lehergailu kopuru zehatz bat indargabetu eta erabilera operatibotik kanpo jarri duela egiaztatu du. Bideoz grabatuta dago. Erabilera operatibotik kanpo jarritako arma, munizio eta lehergailu inbentarioa gehitzen da.

Batzordeak pauso hau sinesgarria eta esanguratsua den uste osoa du. Honek ETAREN arma, munizio eta lehergailu guztiak erabilera operatibotik kanpo jartzera eramango duela uste dugu.

Beste prozesu batzuetan dugun esperientziagatik, inbentario bat egitea eta arma, munizio eta lehergailuak erabilera operatibotik kanpo jartzea erabateko desarmearen aurretiko beharrezko pausoa da. Eragile politiko eta sozial guztien babesarekin hori lortzeko itzaropena dugu. Batzordeak erabakitasunarekin eta inpartzialtasunarekin lanean jarraituko du, bake iraunkor bat lortze aldera.

PDF dokumentua: [ETA erakundeak zigilatutako materialaren inbentarioa](#)

- **Ronnie Kasrils**, Inteligentzia ministro ohia eta defentsa Ministrordea Hegoafrikan.
- **Chris Maccabe**, Gobernu britainiarreko Ipar Irlandako Bulegoko Zuzendari politiko ohia eta Ipar Irlandako Presondegi Erregimenen Buru ohia.
- **Ram Manikkalingam**, Elkarrizketarako Aholkularitza Taldeko Zuzendari eta Amsterdameko Unibertsitateko Irakaslea eta Sri Lankako Presidentearen aholkulari ohia Tigre tamilen negoziazioetarako.
- **Satish Nambiar**, Indiako Estatu Nagusiko Armadako Buru Adjuntu ohia eta Komandante ohia eta Nazio Batuen Babes Indarren Misio Buru ohia Jugoslavian 1992 eta 1993an.
- **Aracelly Santana**, NBEko Idazkari Orokorraren Alboko Ordezkarria eta Misio Alboko Burua, Nepalen NBEko Misioa (UNMIN) eta Ameriketako Bulegoko Zuzendari ohia, NBEko Gai Politikoen Departamentua.
- **Fleur Ravensbergen**, NEBren koordinatzailea eta Elkarrizketarako Aholkularitza Taldeko zuzendariordea.

6. Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen Adierazpena

2017ko apirilak 8



Nazioarteko Egiaztatze Batzordea (NEB) 2011ko irailak 28an sortu zen, Euskadi Ta Askatasuna (ETA)ren behin betiko indarkeriaren amaieraren adierazpena egiaztatzeko xedearekin. Azken sei urteetan, Batzordea, euskal erakunde eta gizarte zibilarekin lanean aritu izan da, indarkeriaren amaiera ordenatua lortze aldera. Bere sorreratik, Batzordeak ,ETAk bere indarkeriazko ekintzak amaitzeko konpromisoa bete duela egiaztatu du.

2014ko urtarrilean, Batzordeak ETAk erabilpen operatibotik kanpo arma, munizio eta lehergailu kopuru zehatz bat utzi zituela egiaztatu zuen. Hau izan zen ETAREN armagabetzerako lehenengo urratsa.

2017ko martxoak 27an Nafarroako legebiltzarrak eta apirilak 6an, Eusko Legebiltzarrak, Batzordearen lanari euren abala eman zioten eta bi erakundeek “aldebakarra, osoa, behin betikoa eta egiaztagarria “ izango zen ETAREN armagabetzea lortzeko euren “ofizio onekin jarraitzeko” eskatu zieten ere.

Helburu honekin, gaur Batzordeak euskal gizarte zibileko ordezkaria den Jean-René Etchegaray- ren eskutik ETAREN arma, munizio eta lehergailuen kokapenaren inguruko informazioa jaso du. Informazio hau berehala zegoen autoritate frantsesen esku jarria izan da. Hauek izango dira ETAREN armategia segurtatu eta jasoko dutenak. Batzordeak ez du fase honetan parte hartuko. Batzordearen iritzitan urrats honek ETAREN armagabetzea suposatzen du.

Gizarte zibileko ordezkariak Baionako Udaletxean gauzatu dute informazio ematea, Baionako alkatea den Jean-René Etchegaray-ren gonbidapenarekin eta presentziarekin. Informazioaren ematearen testiguak izan dira ere, bere gorentasuna Matteo Zuppi, Boloniako artzapezpikua eta Harold Good apaiza, Irlandako Eliza metodistako lehendakari ohia.

2011. urtetik, Batzordea euskal eragile politiko eta sozialekin, hau da, Eusko Jurlaritzak, alderdi politiko, sindikatu, patronala eta eliza katolikoarekin estuki lanean aritu izan da. Batzordeak eskerrak eman nahi dizkio ere Euskadiko, Iñigo Urkullu Lehendakariari, urte hauetan emandako sostenguagatik. Batzordeak eskerrak adierazi nahi dizkie guztiei, su etenaren egiaztatzean eta indarkeriaren behin betiko amaieraren egiaztatzean emandako laguntza eta kooperazioagatik.

Batzordeak konfiantza osoa du, eragile nabarmen guztien laguntzarekin, urrats historiko honek bakea eta bizikidetzak euskal gizartearen sendotzen lagunduko duela.

Batzordea osatzen duten kideak:

- **Ronnie Kasrils**, Inteligentzia ministro ohia eta Hegoafrikako Defentsako ministro-ordea
- **Chris Maccabe**, Erresuma Batuko Gobernuren Ipar Irlandarako bulegoaren zuzendari politiko ohia eta Espetxe erregimenen buru ohia Ipar Irlandan.
- **Ram Manikkalingam**, Euskal Herriko Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko burua. Dialogue Advisory Group nazioarteko bitartekari taldeko zuzendaria da eta Amsterdamgo Unibertsitateko irakaslea. Sri Lankako presidentearen aholkulari ohia, Tigre Tamilekin izandako negoziatioetan.

- **Satish Nambiar**, Indiako indar armatuen Estatu Nagusiko buruzagi albokoa izandakoa. Jugoslavia ohian aritu zen 1992-93an, NBEko indarren ordezkari gisa
- **Fleur Ravensbergen**, Dialogue Advisory Group-eko zuzendariordea
- **Aracelly Santana**, NBEko idazkari nagusiaren ordezkari albokoa eta NBE Nepalen izandako Misioko (UNMIN) zuzendari albokoa.

7. NEB-K BERE JARDUERAREN AMAIERA IRAGARRI DU

2017ko uztailaren 6an

Nazioarteko Egiaztatze Batzordea (NEB) 2011ko irailaren 28an eratu zen *Euskadi Ta Askatasunaren* (ETA) indarkeriaren amaiera egiaztatzeko. Euskal erakundeekin eta gizarte zibilarekin elkarlanean, Batzordeak egiaztatu zuen ETAk bete zuela bere indarkeriazko ekintza guztiak amaitzeko konpromisoa.

2014ko urtarrilean, Batzordeak egiaztatu ahal izan zuen ETAk erabilera operatibotik kanpo utziak zituela arma, munizio eta lehergai kopuru espezifikoak. Hau urrats txikia, baina lehendabiziko urrats garrantzitsua izan zen ETAREN armagabetzerantz.

2017ko apirilaren 8an, Batzordeak, Iparraldeko gizarte zibilaren eskutik, informazioa jaso zuen ETAREN armen, munizioen eta lehergaien kokapenari buruz. Informazio hau dagokien autoritate frantziarren eskura jarri zen, ETAREN armategia aseguru eta jaso zutelarik. Egun hartan bertan, beranduago, jakinarazi zen Frantziako polizia ETAREN materialaren 3,5 tona baino gehiago aseguru zituela.

Orduko barne ministro frantsesak, Matthias Fekl, esan zuen armak entregatzea “urrats handia” zela Europako bakerantz eta segurtasunerantz. EAeko lehendakari den Iñigo Urkulluk baieztatu zuen “funtsezko urratsa zela indarkeriaren amaiera ordenatuaren prozesuan”.

Gertaera hauek kontuan hartuta, Batzordeak ondorioztatu du ETAk bete duela armagabetzeko konpromisoa.

Batzordeak bere lana osatutzat jo du eta, beraz, amaitutzat eman du bere jarduera.

NEBek bere betebeharrak arrakastaz burutzea ahalbidetu duten eragile politiko eta sozial guztiei eskertu nahi die. 2011tik, Batzordeak harreman estuan lan egin du Eusko Jaurlaritzarekin, bai egungoa eta bai aurrekoa, alderdi politikoekin -Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV), EH Bildu, Euskadiko Alderdi Sozialista (PSE-EE)- sindikatuekin- Langileen

Batasun Orokorra (UGT), Euskadiko Langile Komisioak (CCOO), *Eusko Langileen Alkartasuna* (ELA), *Langile Abertzaleen Batzordeak* (LAB) – *Confebask* patronalarekin eta euskal Eliza katolikoaren ordezkariekin. Batzordeak asko eskertzen du hauen guztien laguntza eta lankidetzat. Bereziki, Batzordeak aintzatetsi nahi du eragile hauek NEBen jarritako konfiantza, Batzordea arrakasta bermerik gabeko zeregin zail eta zorrotzean murgildu zenean.

NEBek Eusko Jaurlaritzari, EAeko eta Nafarroako legebiltzarrei eta *Communauté Pays Basqueri* ere eskerrak eman nahi dizkie, Batzordearen zeregina ofizialki bermatzeagatik armagabetze-prozesuan. Bereziki, Batzordeak Iñigo Urkullu *Lehendakariari* eskertu nahi dio, bere konfiantza eta lankidetzat giltzarria izan baita NEBentzat 2011tik. Halaber, NEBek balioetsi nahi ditu *Communautéko* presidente eta Baionako auzapeza den Jean-René Etchegarayren eta Nafarroako Presidente den Uxue Barkosen ahaleginak armagabetze-prozesuaren azken fasean. Batzordeak bere esker ona adierazi nahi dio Eusko Jaurlaritzako Barne sailburu ohia den Rodolfo Aresi, emandako babes eta aholkuagatik. Era berean, Batzordeak eskerrak eman nahi dizkio Sortuko buru den Rufi Etxebarriari bere laguntza eta ahaleginarengatik. Azkenik, Batzordeak bere estimurik sakonena adierazi nahi dio Paul Ríosi eta euskal gizarte zibilaren antolakundea izandako *Lokarriri*, denbora honetan zehar emandako laguntzagatik.

Batzordeak eskerrak eman nahi ditu euskal gizartearen etorkizunerako urrats historiko honetan laguntzeko aukera izan duelako. NEBk espero eta sinisten du eragile politiko eta sozial garrantzitsu guztiek elkarrekin lanean jarraituko dutela euskal gizartearen bake eta elkarbizitza nahiak sendotzeko.

Batzordea osatzen duten kideak:

- **Ronnie Kasrils**, Inteligentzia ministro ohia eta Hegoafrikako Defentsako ministro-ordea
- **Chris Maccabe**, Erresuma Batuko Gobernuren Ipar Irlandarako bulegoaren zuzendari politiko ohia eta Espetxe erregimenen buru ohia Ipar Irlandan.
- **Ram Manikkalingam**, Euskal Herriko Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko burua. Dialogue Advisory Group nazioarteko bitartekari taldeko zuzendaria da eta

Amsterdamgo Unibertsitateko irakaslea. Sri Lankako presidentearen aholkulari ohia, Tigre Tamilekin izandako negoziazioetan.

- **Satish Nambiar**, Indiako indar armatuen Estatu Nagusiko buruzagi albokoa izandakoa. Jugoslavia ohian aritu zen 1992-93an, NBEko indarren ordezkari gisa
- **Fleur Ravensbergen**, Dialogue Advisory Group-eko zuzendariordea
- **Aracelly Santana**, NBEko idazkari nagusiaren ordezkari albokoa eta NBE Nepalen izandako Misioko (UNMIN) zuzendari albokoa.